


# BAKEAREN KULTURA HEZKUNTZA ERALDATZAILERA KO

---

GIDA



# BAKEAREN KULTURA HEZKUNTZA ERALDATZAILERAKO

## GIDA

[www.elankidetza.euskadi.eus](http://www.elankidetza.euskadi.eus)

**Argitaraldia:** maiatza 2024

**Argitaratzaileak:** eLankidetza – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia

**Egilea:** María Oianguren. Gernika Gogoratzuz Bakearen Aldeko Aztertegiko zuzendaria.

**Maketazioa:** Alaiondo estudio



# AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	4
2. BAKEAREN KULTURA .....	5
3. BAKEAREN IKUSPEGIA ETA BILAKAERA	
3.1 Dimentsio historikoa .....	6
3.2 Denbora lerroa .....	8
4. BAKEAREN KULTURAREN PARADIGMA .....	9
4.1 Bakearen premisak eta ikuspegiak hezkuntza eraldatzaile baterako .....	11
4.2 Ekintza proposamenak bakearen aldeko hezkuntzarako .....	14
5. MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA ETA BAKEAREN ERAIKUNTZA EUSKADIN	
5.1 Elkarrizketarako ekimenak eta memoriaren eraikuntza soziala .....	17
5.2 Bakearen kulturarako ikaskuntzak eta gomendioak .....	20
6. ERREFERENTZIAK .....	21

# 1. SARRERA


Konplexutasun eta ziurgabetasun izugarriak markatutako mundu honetan, **bakearen kulturak** oso rol garrantzitsua du gure garaiko erronkei aurre egiterako garaian: desberdintasun soziala, larrialdi klimatikoa, krisi ekosoziala, gerraren gorakada eta bizitzaren militarizazioa, mehatxu nuklearra, adimen artifiziala, polarizazioa eta gorroto-diskurtsoak.

Testuinguru horretan, hezkuntza bakearen kultura finkatzeko faktore erabakigarria da. Horregatik, 2024an lelo hau proposatu du UNESCOk Hezkuntzaren Nazioarteko Egunerako; “Bake iraunkorrerako ikastea”, eta honakoa dio bere komunikatuak: “hezkuntza-sistema eraldatzailea eta baliabide aldetik ondo hornituta dagoena tresna prebentibo eta eraginkorra izan daiteke epe luzera begira, gatazken aurretik, bitartean eta ondoren bakea babesteko, eraikitze eta mantentzeko”. Bake iraunkorraren helburua da gobernantza inklusiboa, demokratikoa eta parte-hartzailea, funtsezko askatasunak, elkarriketa eta elkar ulertzea, garapen jasangarria, berdintasuna eta elkartasuna finkatzea.

Hezkuntzaren dimentsioa ezinbestekoa da, beraz, bake-kulturaren gaineko pentsamendu kritikoa sustatzeko. Hezkuntza horrek orainaldia aztertzen du, iragana ahaztu gabe, eta oinarrian dagoen zibilizazio-ardatza ulertzeko eta etorkizunera begira proiektatzeko aukera ematen du, sortzen diren erronkei erantzun ahal izateko.

eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak **Heziketa Topaketa** jardunaldia egiten du urtero Hezkuntza Sailarekin batera (H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiaren barruan. Jardunaldi horretan, hezkuntza formaleko, ez formaleko eta lankidetzako eragileak elkartzen dira, estrategia horrekin lotutako gai batean elkarrekin sakontzeko eta jardunbide egokiak, gogoetak eta ikaskuntzak partekatzeko. Jardunaldi horiek (H)abianen ideia nagusiei erantzuten diete, hau da ikuspegi politiko-pedagogikoak, eskubideen ikuspegia eta ikuspegi tokikoa-globala sustatzea.

2024an, **“Bakeari begira heztea” izan da Heziketa Topaketaren VII. edizioaren gaia**. Gida honek hezkuntza eraldatzailea lortzeko bakearen kultura lantzeko esparru pedagogikoa jasotzen du.



## 2. BAKEAREN KULTURA

Bakearen kultura bizitzaren gaineko **errespetua, duintasuna eta giza eskubi-deak** islatzen dituzten balioen, jarreraren eta portaeren multzoa da, indarkeria mota guztiak arbuiatzen ditu eta askatasunaren, justiziaren, elkartasunaren eta tolerantziaren printzipioak eta pertsonen, kolektiboen eta herrien arteko ulermena errespetatzen ditu. Horregatik, funtsezko premisa etiko bat du oinarri: inork ez du bere helburuak lortzeko min emateko eskubiderik, hau da, helburuak ez ditu bitartekoak justifikatzen.


Bakearen kulturarako hezkuntzak helburu hauek ditu:



**Bizi garen inguruarekin  
inplikatzeko eta horren  
gaineko ardura hartzea,  
ikuspegi tokiko eta globa-  
letik.**

**Gatazkak modu sortzaile  
eta ez biolentean eral-  
datzeko estrategiak eta  
tresnak ulertzea.**

**Motivar para emprender  
acciones a favor de la cul-  
tura de la paz.**



**Azterketa kritikoak egiteko  
eta indarkeria ekidinezina  
dela zalantzan jartzeko tre-  
batzea, hau da, indarkeria eta  
gatazka bereiztea. Gataz-  
ka berezkoa da pertsonen  
arteko harremanetan eta  
beharrezkoa da gatazkak  
indarkeriarik gabe eraldatzen  
ikastea.**

# 3. BAKEAREN IKUSPEGIA ETA BILAKAERA

## DIMENTSIO HISTORIKOA

Mendebaldeko pentsamenduaren barruan, **Westfaliako Bakeak** (1648) ordena feudal zaharrarekin apurtu zuen eta ordena berria ezarri zuen. Estatuaren burujabetza nazionalen eta lurralde-osotasunean oinarritutako modernitate liberala inauguratu zen. Gerra instituzio militar gisa finkatu zen eta egitura geopolitikoa ordena patriarkal, kolonial eta kapitalistan oinarritutako sistema hegemoniko gisa.

XX. mende erdialdera arte, bakearen kontzeptua **bake negatiboaren** paradigmarekin egon zen lotuta, hau da, bakea gerrarik eta indarkeria zuzenik eza zen. Une horretara arte, bakearen ikerketa gerraren ikerketaren osagarria zen, eta fenomeno ekonomiko eta sozial gisa aztertzen ziren bakearen moduak, arrazoiak eta eraginak.


Bakearen eta gatazken ikasketen diziplina berrogeita hamarreko hamarkadan sortu zen eta gatazkek konpontzeko arau-esparru gisa definitu zuten. Indarkeria-gatazketan oinarritu zen jarduerara, eta bakearen izaera, sintomen tratamendua eta arrazoiak aztertu ziren.

*(1) Indarkeria "giza eskubidearentzat ezinbestekoa den zerbait (osotasun fisikoa, psikikoa edo morala, eskubideak, askatasunak...) urratu edo kentzen duen jarrera edo portaera" da. Bakearen aldeko Hezkuntzari buruzko mintegia. Giza Eskubideen aldeko elkartea: Educar para la paz. Una propuesta posible. Madril Catarata, 2000.*

*(2) Gatazka "bi alderen edo gehiagoren artean interes kontrajarriak edo kontrako beharrak sortzen diren egoera, eztabaida edo desadostasuna" da. P. Gascon: Educar en y para el conflicto. Escola Cultura de Pau, 2001.*

Hirurogeita hamarreko hamarkadan definitu zituzten anbizioz bakearen hiru erronka nagusiak: lehenengoak, etorkizuneko gerra-gatazken prebentzioan zentratzea proposatzen du, nazioarteko segurtasuna bermatzeko; bigarrenak, sistema globaleko desberdintasun eta injustiziekin amaitzea planteatzen du; eta, hirugarrenaren helburuak dira mundu mailan oreka eta kontrol ekologikoa lortzea.

Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, mugimendu antinuklearraren, bakezaletasunaren eta mugimendu feministaren mobilizazio indartsuak izan ziren kaleetan eta ikasgeletan, eta eragina izan zuten bakearen aldeko ikerketen corpus teoriko-praktikoan. Gatazken azterketarekin lotutako ikasketa-eremu berrietan espezializatzen hasi ziren eta horrek aukera eman zuen ondorengo ikuspegiak eta esku-hartzeak bereizteko. Ildo horretatik, gatazkek kudeatzeko, konpontzeko eta eraldatzeko ikuspegiak, praktikak eta jarduketak eremuak planteatu ziren, hala nola erraztea, bitartekaritza eta negoziazioa, hainbat arlotan aplikatuta (politikoa, enpresena, komunitarioa, hezkuntza, familia...).



Aldaketa historikoak belaunaldien arteko ahalegin eta mobilizazioari esker lortutako prozesu sozial luzeen emaitza dira, eta gizateriaren erronkarik handienetako batzuk eraldatzea lortu da, esaterako: feudalismotik sistema demokratiko modernora igarotzea, sufragio unibertsala, esklabotza abolitzea, giza eskubideen aldarrikapenaren esparrua, berdintasunaren aldeko borroka feminista, ingurumeneko arazoaren gaineko kontzientzia zabaltzeko ekologismoaren borroka eta gatazkak indarkeriarik gabe eraldatzearen alde egiten duen bakezaletasunaren borroka. Hala, bake positiboaren esparrua eta ikuskera zabaldu dira. **Bake positiboa** indarkeriarik (zuzeneko, kulturala eta egiturazkoa) ez izatea eta giza harremanen maila guztietan justizia soziala izatea da. Bake positiboa kontzeptu dinamikoa da eta gatazkak modu sortzailean eraldatzera bideratuta dago. Bakea aktiboki eraikitzea dakar, giza jokabide eta portaeretan presente egotea eta gizarte baketsuak sortu eta mantentzen dituzten egiturak finkatzea.

Laurogeita hamarreko hamarkadan, Gerra Hotzaren ostean, **bake liberalerako** agenda konfiguratu zuten eta hainbat operazio proposatu zituzten gatazka armatuak izan zituzten lurraldeetarako. Hala, esku-hartze eredu bat finkatu zen, estatuen gobernagarritasunean segurtasun-politikak ezartzeko, demokrazia defendatzeko, garatzeko eta giza eskubideak defendatzeko. Bake liberalak Mendebaldeko balioak ezarri zituen mundua ulertzeko beste edozein moduren gainetik, hierarkikoki. Horregatik, bakea bera ulertzeko moduan eragina izan zuen eta globalizazio neoliberala, merkatu-ekonomia eta Mendebaldeko ekonomia munduan finkatzeko tresna bihurtu zen.

XXI. mendeko lehen bi hamarkadetan, gizarte-zientzietako teoria kritikoek, postestrukturalismoak, feminismoak eta ikasketa poskolonialek zalantza jarri zuten Mendebaldeko potentziek ezarritako bake liberalaren eredia. Hala, urratsak egin dira **bake postliberalaren** esparrua kritikoki eratzeko proposamen berrietarantz.




# DENBORA LERROA





# 4. BAKEAREN KULTURAREN PARADIGMA

Bakearen kultura elkarbizitzarako eta mundua eta giza harremanak ulertzeko modua da, eta **indarkeria-gabezia** eta **gatazken eraldaketan** oinarritzen da. Gizarteetan partekatu eta finkatu beharreko balioak, jarrerak eta portaerak sustatzen ditu. Gatazkak modu ez oldarkorrean eraldatzeko epe labur, ertain eta luzerako ekintzak bideratu ahal izateko hainbat proposamen biltzen ditu bakearen kulturak.



*Mundu duinagoa, bidezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzeko konpromisoaren barruan bakearen kulturak dituen printzipioak*

Abiapuntua da bakea **pentsatzeko, sentitzeko eta egiteko** giza potentziala garatzea eta indarkeria-gatazken arrazoiak eta pertsonengan, ehundura sozialarengan eta ingurumenarengan dituzten ondorioak aztertzen ditu.

Bakea **justizia soziala eta ingurumenekoa** dela ulertzen du eta **eskubideei bideratuta** dago.

Indarkeria ezin dela ekidin dioen narrazioa zalantzan jartzen duen planteamendua da eta **gatazkak modu ez oldarkorrean eraldatzearen alde** egiten du.

Pentsamendu kritikoa, **lankidetzeta eta elkartasuna** sustatzen duten ikaskuntza-esparruak indartzen ditu.

## Bake positiboa da bakearen kulturaren oinarria

Bake negatibotik harago doa, gerrarik eta indarkeria zuzenik eza baita bakea ikuspegi horren kasuan. **Bake positiboak** indarkeriaren egiturazko arrazoen azterketan sakontzen du eta dimentsio kulturala hartzen du kontuan, gatazkak bide baketsuetatik eraldatzeko.

**Egiturazko indarkeria** egitura sozialetik dator (ekonomia, politika, legegak...). Funtsezko eskubideen eta askatasunen desoreka eta urraketa larriak eragiten ditu eta bizitza duina garatzea eragozten dute. Dominazioaren, errepresioaren eta esplotazioaren bidez adierazten da. Kasu askotan, indarkeria zuzenaren ez-tanden hasiera izaten da.

**Indarkeria kulturala** sinbolikoa da eta erlijioaren, ideologiaren, hizkeraren, artearen, zuzenbidearen, komunikabideen eta hezkuntzaren bidez ematen da. Indarkeria kulturalak eutsi eta legitimizatzen du egiturazko indarkeria eta bazterkeria- eta marjinazio-harremanak.

Bake positiboaren helburua da gizarte duina, bidezkoa eta jasangarria eraikitzea. "Gatazkak enpatiarekin, indarkeria ezarekin eta sormenarekin kudeatzeko gaitasuna" (Galtung, 2003) dela dioen definizioa du oinarri. Azken batean, proposamen horren arabera, egiturazko indarkeriaren eta indarkeria kulturalaren egoerekin amaitzeko eta mundu bailan **bizikidetza baketsua sustatuko duen justizia soziala lortu ahal izateko giza gaitasunak garatzean datza** bakeak.

Gatazken eta desberdintasun sozialen, genero-desberdintasunen eta beste edozein desberdintasunen **errora joan** behar dela aintzat hartzen du.

Eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumeneko guztien osotasunaren, interdependentziaren eta zatiezintasunaren defentsa txertatzen du agendan.

Tokikoan kateatzen da, testuinguruan politikoki eragiteko.

Gatazken eraldaketa-prozesuetan eta aldaketa sozialetan gizarte zibilak **parte hartzea** babesten du.

Bake-agenda liberalaren esku-hartzeko praktikak ezarri duen ongilearen edo salbatzailearen eredu asistentzialista gainditzeko dimentsio emantzipatzailea proposatzen du.



Subjektu politikoen protagonismoa nabarmentzen du eta **agentzia kolektiboa** indartzen du. Gainera, egunerokotasunari garrantzia ematen dio, bakea eraikitzeko espazio gisa.

Bizitzaren jasangarritasun-proposamenei eta mundu mailako justizia distributiboaren eskariei jartzen die arreta.

# BAKEAREN PREMISAK ETA IKUSPEGIAK HEZKUNTZA ERALDATZAILE BATERAKO

2000tik, zabaldu egin da bakearen eta gatazken ikasketen marko teoriko-praktikoa eta ikuspegi berriak txertatu dira. Ikuspegi kritiko horiek diote beharrezkoa dela duintasunaren, justiziaren eta jasangarritasunaren aldetik mundu bizigarriago batean bizitzari eta elkarbizitzari eusteko funtsezko baldintza material eta immaterialak ezagutzeak.

Oinarrizko **bi premisa** dira abiapuntuak:



①

*Alde batetik, botere-dinamikak eta pertsonak eta kolektiboak baztertzeko dinamikak ikusarazteko gai diren proposamen plural eta askotarikoak uztartzen dituzte, eta, halaber, tradizionalki menderatuak egon diren jakintzak kontuan hartzeko aukera ematen dute (emakumeen jakintzak, hegoaldeko jakintzak, jakintza tradizionalak...).*

②

*Bestalde, giza gaitasunen arteko lotura aitortzen duen bakearen eraikuntzarako ikuspegi dinamiko eta konplexua txertatzen dute, bereziki, dimentsio kolektiboarekin, beharrak asebetetzearekin, gatazken eraldaketa baketsuarekin eta ingurunearekiko erantzukizunarekin lotuta.*

## Bakearen aldeko hezkuntzaren ikuspegi kritikoak

Memoria eta bere denbora-dimentsioa faktore erabakigarria da bizikidetzaren baketsuaren agertokiak lortzeko eta gure burua harreman-sarearen barruan irudikatzen gaitasuna sortzeko (sare horretan egongo dira konfrontazioan gure etsaiak edo aurkariak izandakoak) eta polarizazioa-agertokiak betikotzen dituen dualitatearen haragoko konplexutasuna ulertzeko aurrerapausoak eman ahal izateko. Indarkeriak kaltetutako komunitateetan iraganari buruzko hausnarketa, biktimen aitortza, egia jakiteko eskubidea, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak funtsezko elementuak dira etorkizun komuna eraikitzeko.


**Ikuspegi sinbolikoak, artistikoak eta sortzaileak.** Errotutako eta indarkeria-aldi luzeko gatazkak sozialki osatzeko prozesuetan, ezusteko aurkikuntzen, narrazioen eta soinu-paisaien bidezko ikaskuntza inductiboa funtsezko tresna da gerraren eta indarkeriaren biktimen erreparazio-prozesuetan eta egia eta justizia lortzeko eskubidearen esparruan.

**Gatazkaren ikuspegi sentibera** izatea da erantzukizunez jokatzeko eta kalte handiagorik ez eragitea esku hartzen den testuinguruetan. Horretarako, esku-hartzearen eragin negatiboak minimizatu behar dira eta, ahal bada, positiboak handitu. Edo, bestela esanda, "zainduz jardutea".

**Giza eskubideen ikuspegiak eta gaitasun kolektiboen ikuspegiak** "tokiko norabideari" garrantzia emateaz gain, aldarrikatzen dute pertsonak eta komunitateak izan behar direla erabakiak hartzeko espazioen eta politika publikoen erdigunean egon behar dutenak. Bestela esanda, gobernantza demokratikoa handitu behar dela.

**Proposamen ekofeministek** gizakien arteko mendekotasun sozial eta erlazionalaren eta naturarekiko mendekotasunaren berri ematen dute. Kapitala-bizitza gatazkaren proposamena-ekin, ekonomia feministek genero-desberdintasunak zailtzen jartzen dituzte eta azterketa intersektionalak txertatzen dituzte, zapalkuntzaren, bazterkeriaren eta menderakuntzaren askotariko moduei aurre egiteko. Sistema kapitalista neoliberalaren aurrean, "bizitzak erdigunean" jartzeko premisak laburtzen du hori.

- **Ezagutzaren arloan, Hegoaldeko epistemologiak, indigenen jakintzak eta beste arrazionaltasun batzuk** konfiguratzeko dituzten Asiako mundu-ikuskeraren erlazio-ontologiak; proiektu moderno kolonialaren indibidualismo ontologikoa, hau da, Estatu eta herritartasuna eraikitzeko modu liberala zalantzan jartzen duten subjektua, izaera eta espiritueltasuna. Edo "ertze-tatik pentsatzea" esan genezake.
- **Ingurumeneko ikuspegia edo ekosoziala.** Hala, larrialdi klimatikoak eragina du gerretan, gatazketan, migrazio-desplazamendu nagusietan eta estraktibismoan. Hortaz, bake positiboaren paradigmatik gogoeta handiagoa eskatzen du Lur sistemari buruz. Edo, bestela esanda, lurraldean bizitzeko ditugun moduei buruz.
- Pertzepzioei, emozioei, intuizioei eta sentimenduei bide ematen dien **dimentsio intersubjektiboa** eta bizitzaren zentzuaren gaineko gogoeta etikoaren eta konpromisoaren aldarria egiten duen dimentsioa aldaketa sozialen prozesuetan eta bakearen eraikuntzan kontuan hartu beharreko osagarri garrantzitsuak dira. Hau da, munduan egoteko dugun moduaren gaineko arduraren hartu behar dugu pertsonalki eta kolektiboki.




# EKINTZA PROPOSAMENAK BAKEAREN ALDEKO HEZKUNTZARAKO

Bakearen eraikuntzak komunitate baten eguneroko alderdiak zein historikoki izandako alderdi kulturalak eta dinamika geopolitikoak barne hartzen ditu. Bakearen aldeko hezkuntzak **gizarte osoa interpelatzen** du eta ezinbestekoa da bakearen kulturara bideratutako **aldaketa soziala sustatzeko eta bermatzeko**. Hezkuntza-arloan ekintza-proposamen asko garatu daitezke eta lotura dute haien artean.

Hezkuntzako ekintza askok dute eragina herritarren kontzientziazioan eta hezkuntza eraldatzailearen proposamenen artikulazioan, bai hezkuntza formal eta ez formaletik, bai sentsibilizazio-kanpainen bidez.

Hurbilpen honetan, bakearen kulturari eta gure mundu-ikuskerara ulertzeko inplikazioei buruzko gogoetan ekarpena egiten duten ekintzak soilik bildu dira.




## *Bakearen kulturara bideratutako ekintzak...*

Patriarkatuaren, eredu antopozentrikoen, androzentrikoen eta eurozentrikoen **azterketa kritikoa** eta baliotze-sistemen berrikuspena, feminismoaren, hezkuntza dekolonialaren, indarkeriarik ezaren, ingurumeneko jasangarritasunaren eta justizia klimatikoaren ikuspegitik.

Gatazkak ekidin ezinak dira eta, horregatik, beharrezkoa da **prebentzio-mekanismoak**, horiei aurre egiteko aukera ematen duten ereduak eta modu baketsuan, sortzailean

eta eraikitzailean bideratzeko ereduak sortzea (arbitraje-sistemak, bitartekaritza, negoziazioa, erraztea...).

**Sistema politikoa eta bere egiturak indartzea**, demokrazia osoagoa lortzeko. Askatasun demokratikoak bermatu behar dira. Ordezkaritza politikoa ezinbestekoa da, baita herritarrek parte-hartzea handiagoa izatea ere publikoari eragiten dioten erabakietan. Beharrezkoa da bakea lortzeko politika publikoak sustatzea.



### Bizitzaren desmilitarizaziora bideratutako ekintzak...

Gerra “desikastea”, **gerra eta indarkeria ekidinezinak ez direla** ikasteko. Militarismoak eta armen fabrikazioak eta komertzioak gatazka armatuen ondorioak larriagotzen dituzte, eta, hortaz, kaltetutako biztanleriarengan izaten dituzten ondorioak (egun biktimen % 90 zibilak dira), zein ingurumeneko ondorioak. Kontzientzia-eragozpen fiskal, laboral edo zientifikoa edo militarismoarekin lotutako beste edozein moduren gaineko kontzientzia-eragozpena sustatzea da pentsamoldeak eta bizitzak desmilitaritzen laguntzeko modua.

Munduko gastu militarren hazkundera salatzea, herritarrei kontzientziatzeko gaituan eta garapen sozialean egindako inbertsioak segurtasun handiagoko gizarateak sortzen laguntzen duela, zentzurik zabalenean. Suntsipen masiborako armak legez kanpo uztea, armen fabrikazioa murriztea eta industria militarra industria zibil bihurtzeko aurrerapausoak egitea. Gainera, segurtasunaren ikuspegi militaristaren ordez giza segurtasunaren ikuspegia ezartzea, pertsonak eta haien beharrak oinarri hartuta.

### Planetan arduraz bizitzeko ekintzak...

Baliabideak banatzea eta **bakearen ekonomia** pertsonen zerbitzura jartzea, desberdintasun sozial handiekin amaitzeko eta oinarritzko baliabideetarako sarbidea izateko. Horretarako, heziketa-kanpainak jar daitezke martxan, fiskalitate bidezkoa ezartzeko eta elite gutxi batzuen esku dagoen aberastasuna banatzeko. **Banku etikoa edo bidezko merkataritza** ekimen baliogarriak dira, besteak beste.

**Giza eskubideak**, eskubide zibilak eta politikoak, eskubide ekonomikoak, baldintza sozialen gaineko eskubide sozial eta kulturalak eta bizitza duin, bidezko eta jasangarria izateko oinarritzko behar ekonomikoak (elikadura, etxebizitza, hezkuntza eta osasun publikoa...) bermatzea bere osotasunean. Eta hirugarren

belaunaldikoak, justiziarekin, bakearekin, elkartasunarekin eta ingurumen osasungarriarekin lotuta. Pertsonak, beste bizimoduak eta bizigaren ingurunea errespetatzea, hau da, ekosistema baten eta planeta osoaren parte izatearen kontzientzia handitzea.

**Beste ezagutza batzuei garrantzia ematea** eta kapitalismoaren logikaren mende ez dauden beste praktika alternatibo batzuk ezagutzea, hau da onurak pilatu eta maximizatzean oinarritzen ez direnak, eta elkarrekikotasuneko beste logika ekonomiko batzuetarako trantsizioa egin ahal izatea. Esaterako, ekonomia sozial eta solidarioek aukera ematen digute munduan dauden espazioetan irizpide sozialekin, ingurumenekoekin eta epistemikoekin bizitzeko.


## Eragin politikoaren ekintzak...

**Kontzientziazioa eta indarkeriarik gabeko borroka** dira injustizia-egoerak eta botere-gehiegikeriak eraldatzeko modurik etiko eta eraginkorrena. Izan ere, kasu horietan indarkeria zuzenak, egiturazkoak eta kulturalak pertsonen eta funtsezko eskubideen aurka egiten dute. Hainbat modutara artikulatzen da, elkarrizketarako espazioak sortuz, salaketa publikoarekin, manifestazioekin, erresistentzia zibilarekin, desobediencia arekin, alternatibak eraikiz...

Nazioarteko zuzenbidea betetzea eta Justiziaren nazioarteko Auzitegiak handitzea esaldi lotesleak dira, baita **bakerako zerbitzu zibilak** sortzea ere. Mundu mailan gobernagarritasunerako egi-

turak artikulatzea. Nazioarteko instantzien ordezkartza, demokratizazioa eta aurrekontu humano, ekonomi eta juridikoak hobetzea, esaterako, Nazio Batuenak.

**Herritarren diplomazia**, nazioarteko harremanen eragile globalagoa izatea. Herritarren, institutuena, ikerketa-zentroen eta administrazioen arteko komunikazio- eta elkarrizketa-dinamikak artikulatzen dituzten ekimenak, interes publikoko gaitan eragiteko. Nazioarteko kanpainak, hala nola TPAN (arma nuklearrak debekatzeko ituna), SKR (Stop Killer Robots - indarraren erabileran giza kontrola bermatzeko eta arma-sistemei buruzko autonomiaren legea bermatzea).






# 5. MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA ETA BAKEAREN ERAIKUNTZA EUSKADIN

Motibazio politikoko indarkeria eta giza eskubideen urraketa larriak hainbat hamarkadaz jasan ostean, ETAK 2011n indarkeriaren amaiera iragarri zue-  
nean, elkarbizitzarako agertoki berri bat zabaldu zen. Bakearen kulturaren  
arloan, elkartzeko eta elkarrizketarako espazio asko sortu dira, indarkeriaren  
ondorioak eta maila sozialean izandako inpaktua lantzeko.

## ELKARRIZKETARAKO EKIMENAK ETA MEMORIAREN ERAIKUNTZA SOZIALA

Helburu hauek dituzten ekimenak dira: indarkeriaren inpaktuari eta eraginei  
buruzko gogoeta egiteko eta elkartzeko espazioak sortzea, egia jakiteko es-  
kubidearen gainean sentsibilizatzea, biktimen sufrimendua aitortzeko beha-  
rra nabarmentzea, eta justizia eta erreparazioa bermatzea, etorkizun komuna  
eraikitzeko oinarriak ezartzeko. Hauek nabarmentzen dira besteak beste:



### EKIMEN INSTITUZIONALAK

**2013-2016**

Bizikidetza Plana

**2017-2020**

Bizikidetza eta Giza Eskubi-  
deen Plana

**2021-2024**

Udaberri Bizikidetza, Giza  
Eskubide eta Aniztasunaren  
Plana

IKUSI

IKUSI

## EKIMEN KOMUNITARIOAK

- **Gernika Gogoratzuz, Gernikako Bakearen Museoak eta Bakeola Fundazioak** koordinatzen dute. "**MemoriaLab Memoriaren eraikuntza sozialerako ekimena**". Herritarren parte-hartze programa bat da, memoriaren eraikuntza soziala egiteko. 2013an sortu zen, Glencree, iBakeaz Blai edo BatzART! ekimenek inspiratuta eta aukera-leiho bat zabaldu zuen topaketak sustatzeko, euskal gizartean izandako indarkeriaren eta elkarbizitza-alterazioen (enpatia-falta, harreman sozialak apurtzea, beldurra eta isiltasuna) inpaktuari buruzko lekukotzak partekatzeko.

2018an sortu zen "**Afaloste**": **Elkarbizitza pil-pilean. Laborategi gastronomiko-soziala**" ekimena. Pandemia garaian, "**Afaloste On**". Askotariko eta hainbat belaunalditako pertsonen talde bat, txoko batean elkartzen dira, jan eta elkarrekin hitz egiten dute motibazio politikoko indarkeriarekin izandako esperientziez. Ekimen horren antolakuntzan dago halaber Eskubidez Euskadiko elkartearen sarea.

- **Baketik Fundazioak** bakearen eta elkarbizitzaren udal-prozesuak garatzen ditu Gipuzkoan eta proiektuak egiten ditu biktimen parte-hartzea eta kulturaren eta artearen rola ikusarazteko.
- **Bakeola\_EDE Fundazioak** indarkeria politikoaren eta terrorismoaren biktimen eta gizarteko sektoreen arteko topaketak antolatzen ditu.
- **Bidelagun programa**. Acompañamiento a procesos de diálogo en Euskal-Herria. Algunos aprendizajes y un camino por recorrer, Aitziber Blanco Goikoetxea, 2023an editatua.

## IKASTETXEETAKO ETA UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZA-EKIMENAK


**Adi-adian Hezkuntza Modu-lua.** Bakearen aldeko hezkuntzaren arloan, indarkeriaren bidegabekeria, biktimekiko elkartasuna eta haien lekukotzen balio pedagogikoa. Euskadiko hezkuntza-sisteman presente egon da eta eskaerak igo egin dira. Gipuzkoan Baketikek eta Bizkaian Bakeolak ezartzen dute programa.

IKUSI

IKUSI

## Euskadin historia eta bakearen eraikuntza irakasteko ikaskuntza-komunitatea.

Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuaren Zentroak indarkeriaren historia irakasteko gakoak identifikatzeko programak ditu, indarkeria deslegitimatze eta bakearen aldeko kultura eraiki ahal izateko.





# BAKEAREN KULTURARAKO IKASKUNTZAK ETA GOMENDIOAK

Bakearen Kulturari egindako ekarpenagatik **ICIPek (Bakearen aldeko Nazioarteko Kataluniako Institutua) Euskadiko elkarten ehundurari emandako sariak** aitortzen duen moduan, Euskadin ekimen asko egin dira harraskadetan zehar. Ekimen horiek giza eskubideen urraketak salatzen, zein bakearen aldeko hezkuntza sustatzeko balio izan dute, gizarte kritikoa eraikitze aldera.

Aipatutako ekimen bakoitzean, helburuez gain, prozesu bakoitzaren metodologiak eta ikasitako ikasgaiak aurki daitezke. Puntu honetan, hori ikaskuntza nabarmentzen dira gomendio gisa.

Lehenengo ikaskuntza da **pertsonen, erakundeen eta instituzioen arteko zubiak eraikitzea, lanerako eta lankidetzarako sareak** ezartzeko, eta bakearen kulturari ekarpena egiteko, ekimen plural eta askotarikoen bitartez.



Bigarren ikaskuntza da **elkartzeko eta elkarrizketaren bidez gogoetarako espazioak zabaltzeak** duen garrantzia, memoriaren eraikuntza sozialerako eta indarkeriak pertsonen bizitzan dituen ondorioak eta elkarten ehunduran, ekonomikoan, kulturean eta politikoan duen inpaktua elkarrekin jorratzeko, betiere, memoria bake-pedagogia gisa finkatzeko.

Hirugarren ikaskuntza da **aliantza publiko-komunitarioek** duten balioa, bakea, giza eskubideak eta memoria demokratikoa sustatzeko politika publikoak instituzionalizatzeko.



# 6.ERREFERENTZIAK

## BIBLIOGRAFIA

---

// ALBERDI, Jokin; Casimiro, Isabel; Cunha, Teresa; Dubois, Alfonso; Fernández, Gonzalo; Jubeto, Yolanda; Larrañaga, Mertxe, Oianguren, María eta Pinho Valle, Luisa (2019): **Gatazka egoeran dauden lurraldeak.Bizi-alternatibak eraikitze gakoak**. Gernika Gogoratz.

// ALBERDI, Jokin; Font, Tica; Oianguren, María eta Zambrano-Quintero, Liliana (2024): **Bakearen eta lankidetzaren deszentralizatuaren tokiko agendarako gida. Tokiko bake-politikak indartzeko orientabideak**. Lankidetzaren Deszentralizatuaren Behatokia. Bartzelonako Aldundia, Bakearen Nazioarteko Kataluniako Institutuarekin lankidetzan.

// BARBEITIO, Cécile eta CAIRETA, Marina (2009): **Juegos de paz. Caja de herramientas para educar hacia una cultura de paz**. Madril: Libros de la catarata.

// BUEY CAÑAS, María eta PÉREZ BAEZA, Sofía (2023): **Una guía para la alfabetización ecosocial: paz, decrecimiento y sustentabilidad para un mundo postfosilista**. Madril GHECO UAM Taldea, Demospaz, cultura de Paz Fundazioa, Seeds eta Gai Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioa

// CALVO RUFAGES, Jordi (2016): **Mentes militarizadas. Cómo nos educan para asumir la guerra y la violencia**. Barcelona: Icaria.

// Galtung, Johan (1998): **Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución. Afrontando los efectos visibles e invisibles de la guerra y la violencia**, Bilbao, Bakeaz/Gernika Gogoratz.

(2003): **Paz por medios pacíficos. Paz y conflicto, desarrollo y civilización**, Bilbao, Bakeaz/Gernika Gogoratz.

(2003): **Bortxakeria kulturala**. Bilbao, Bakeaz/Gernika Gogoratz.

// Lederach, John Paul (1998): **Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas**, Bilbao, Bakeaz/Gernika Gogoratz.

(2007): **La imaginación moral. El arte y el alma de la construcción de la paz**, Bilbao, Bakeaz/Gernika Gogoratz.

Angela Jill Lederach (2014): **Cuando la sangre y los huesos claman. Travesías por el paisaje sonoro de la curación y la reconciliación**, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratz.

## INTEREZKO WEBGUNEAK

---

### // AIPAZ

Bake Ikerketen Espainiako Elkarte.

### // BAKETIK FUNDAZIOA

Gizarte zibilaren erakunde bat da, eraldaketa soziala bilatu nahian eta aldaketarako konpromisotik abiatuta gatazken konponbidea bilatzen duena, betiere giza eskubideetan oinarriturik.

### // EDE FUNDAZIOA

Bizikidetzaren hobetzeko, giza eskubideak sustatzeko eta komunitatea garatzeko prozesuak sustatzen dituen zentroa.

### // ESCOLA CULTURA DE PAU UAB

Portal de educación por la paz.

### // ESKUBIDEZ

Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Erakunde-Foroa.


### // GERNIKA GOGORATUZ

Bakearen Aldeko Aztertegia.

### // GOGORA

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.

### // GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



(H)ABIAN